## PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | TELEBISTAKO PROIEKTUEN PRODUKZIOAREN LANERAKO PLANAREN PRESTAKUNTZA | Iraupena | 60 |
| | | Baldintzatua | |
| Kodea | UF0366 | | |
| Lanbide-arloa | IRUDIA ETA SOINUA | | |
| Lanbide-eremua | Ikus-entzunezkoen produkzioa. | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Telebistako produkzioko laguntza | Maila | 3 |
| Prestakuntza-modulua | Telebistako proiektuen produkzioa | Iraupena | 180 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Telebistako proiektuak produzitzeko baliabideen zehaztapena | Iraupena | 80 |
| | Telebistako proiektuen aurrekontuen prestaketa | | 40 |

## A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0207_3 TELEBISTAKO PROIEKTUEN PRODUKZIOA ANTOLATZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin

## B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Telebista-programen lanerako planak egitea, produkzioaren plangintza egiteko metodoak eta ereduak bereiziz eta aztertuz.

EI1.1 Telebista-programak egiteko faseetan (preprodukzioa, produkzioa eta postprodukzioa), produkzioa antolatzeko sistemak ondorioztatzea eta azaltzea.

EI1.2 Ekoizpenaren plangintza egiteko ereduak deskribatzea eta azaltzea, programa errealizatzeko moduaren eta generoaren arabera.

EI1.3 Produkzioaren faseetan giza baliabideek eta baliabide tekniko eta materialek duten garrantzia eta parte-hartzea eta erabilera-maila aztertzea, programa errealizatzeko moduaren eta generoaren arabera.

EI1.4 Telebista-programen produkzioaren plangintza egiteko erabilitako teknikak eta irizpideak bereiztea; aurreikusitako lanerako plana ekoizpenaren eguneko segimenduarekin alderatzeko teknikak bereiztea.

EI1.5 Telebista-programen gidoitik edo eskaletatik abiatuz:

- Produkzioko faseen eskema egitea, haietako bakoitzeko prozesuak eta lanak jasoz.
- Lanerako plana egitea, sor daitezkeen gertakizun arruntenetarako irtenbide alternatiboak ere jasoz.
- Lanerako plana egiteko erabilitako irizpideen argibide-memoria egitea.
- Dokumentuak ongi prestatzea, teknika eta kode egokiekin, eta tresna informatiko egokiak erabiliz.

A2: Telebista-programen produkzioaren antolaketa aztertzea, prestatzea eta aurrera eramatea, kamera ugarirekin.

EI2.1 Drama baten gidoitik abiatuta:

- Finantzaketa-modua eta -iturriak identifikatzea.
- Gidoiaren banakapena egitea.
- Behar diren baimenak identifikatzea eta izapidetzea.
- Lanerako plana egitea.
- Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak lortzeko antolaketak eta izapideak egitea.
- Eguneko lan-zerrenda zehatzak ondorioztatzea eta prestatzea, eta produkzioaren jarraitutasuna eta hura amaitzea bermatuko luketen deialdiak prestatzea.
- Produkzioaren segimendua eta kontrola egiteko beharrezkoak diren dokumentuak prestatzea, tresna informatiko egokiak erabiliz.
- Produkzioa aurrera eramateko erabilitako tekniken eta irizpideen argibide-memoria bat egitea.

EI2.2 Albistegi baten gidoitik abiatuta:

- Finantzaketa-modua eta -iturriak identifikatzea.
- Gidoiaren banakapena egitea.
- Behar diren baimenak identifikatzea eta izapidetzea.
- Lanerako plana egitea.
- Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak lortzeko antolaketak eta izapideak egitea.
- Eguneko lan-zerrenda zehatzak ondorioztatzea eta prestatzea, eta produkzioaren jarraitutasuna eta hura amaitzea bermatuko luketen deialdiak prestatzea.
- Produkzioaren segimendua eta kontrola egiteko beharrezkoak diren dokumentuak prestatzea, tresna informatiko egokiak erabiliz.

- Produkzioa aurrera eramateko erabilitako tekniken eta irizpideen argibide-memoria bat egitea.

EI2.3 Barietate-programa baten gidoitik abiatuz:

- Finantzaketa-modua eta -iturriak identifikatzea.
- Gidoiaren banakapena egitea.
- Behar diren baimenak identifikatzea eta izapidetzea.
- Lanerako plana egitea.
- Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak lortzeko antolaketak eta izapideak egitea.
- Eguneko lan-zerrenda zehatzak ondorioztatzea eta prestatzea, eta produkzioaren jarraitutasuna eta hura amaitzea bermatuko luketen deialdiak prestatzea.
- Produkzioaren segimendua eta kontrola egiteko beharrezkoak diren dokumentuak prestatzea, tresna informatiko egokiak erabiliz.
- Produkzioa aurrera eramateko erabilitako tekniken eta irizpideen argibide-memoria bat egitea.

EI2.4 Emankizun baten gidoitik edo eskaletatik abiatuz:

- Beharrezkoak diren baliabideak identifikatzea.
- Beharrezkoak diren kokalekuak eta baimenak identifikatzea.
- Lanerako plana egitea.
- Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak lortzeko kudeaketak identifikatzea.
- Produkzioaren segimendua eta kontrola egiteko beharrezkoak diren dokumentuak prestatzea, tresna informatiko egokiak erabiliz.

## Edukiak

### 1. Telebista-programen produkzioa antolatzeko sistemak

- Plangintza-ereduak generoaren arabera.
- Plangintza egiteko teknikak eta irizpideak.
- Produkzioaren eguneroko segimendua.

### 2. Produkzioaren plangintza egiteko tresnak

- Antolaketa-dokumentuak.
- Tresna informatikoak.

### 3. Lanerako plan baten prestaketa

- Lan-eskemaren prestaketa.
- Baliabideen esku-hartze mailaren zehaztapena.
- Ager daitezkeen gertakizunetarako irtenbideak eta alternatibak bilatzea.
- Deialdien eta lan-zerrenden prestaketa.
- Argibide-memorien prestaketa.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

### Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0365 Telebistako proiektuak produzitzeko baliabideen zehaztapena

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza